

KOSTUEN EGITURA



1. Zein dira gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

- Gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak materialak eskuratzeak sorrarazten dituen kostuak dira. Hala ere, beste hainbat kostu izango ditugu eta hauek honela sailkatzen dira:
 - Kostu finkoak:
 - Noizbait blog-aren kalitatea hobetzeko helburua baldin badugu, hori egiteko ordaindu beharreko dirua.
 - Lokalaren edo tailerraren alokairua.
 - Langileren bat kontratatuz gero, horien soldata.
 - Ekipo informatikoaren kostuak (hasieran taldekide baten ordenagailua erabiliko dugu, baina geroago enpresarako ekipo informatiko propioa erosiko dugu).
 - Produktuak ekoizteko erabiliko ditugun makinaren kostua.
 - ...
 - Kostu aldakorak:
 - Produktuak ekoizteko erabiliko ditugun materialak.
 - Erabiliko dugun elektrizitatearen edota energiaren kostua.
 - Noizbait matxurak baditugu, horiek konpontzeko kostua.
 - ...
 - Eskala-ekonomia: 10 bezerok tutuerietan jartzeko mekanismoa eskatzen badigute, kostu txikiagoa izango dugu horiek batera ekoiztean, banaka mekanismo bakoitza ekoiztean baino.
 - Hedapen-ekonomia: hainbat mekanismo egiteko baliabide berdinak erabiliko ditugu, adb: makina eta erreminta berberak.
- Gure enpresan kostuak minimizatzen saiatuko gara, baina hori ez da gure helburu nagusia izango, baizik eta bezeroari balio erantsia eskaintzea, produktuen kalitatea zainduz. Beraz, enpresa hau balioan oinarritutako negozio bat izango da.